



Axeri dantzan jende asko atera zen atzo, eta sokan zijoaztenek izan zuten nahikoa lan denentzat partitzen.

## Goiz goizetik giro ona Koadrila Egunean

■ Eguraldiak ez zuen jendea izutu eta urteroko moduan jende asko bildu zen lehenengo Soka Muturra eta Axeri Dantzara eta hortik aurrera egun guztiko festa izan zen atzo.

LEHENENGO ordutik ibili zen atzo jendea Hernanin San Joan bigarrenen. Sokamuturra eta Axeri dantza aurretik Ur Gerra zegoen deitua eta jendeak mela-mela eginda bukatu zuen, lehenaz gain. San Joanetako lehenengo Axeri Dantzan kale betean ibili zen jendea eta sokan zijoaztenek nahiko lan

izan zuten tokia irekitzen. Hezetasunarekin maxkuriak soinu gutxiago eta min gehiago egiten du eta atzo bizkarrara ondo gorrituta bukatu zuten askok. Oraindik nahiko eskarmentu izan ez duenak gaur ere badu aukera, baina, badaezpada hobe du kamixeta galtzetan ondo sartu, elkarri bizkarra bistara

ateratzea ohitura bihurtu baita.

### Koadrila bazkariak

Ohiturari segiz bazkariak izan ziren han eta hemen atzo Hernanin. Jenderik gehiena aurten Gudarien plazan elkartu da, Gazte Asanbladak antolatutako bazkarian, baina, soziedade eta jatetxeetan ere

jendea bildu da. Atzo gainera bi Koadrilari omenaldia egin zitzaizen Udaletxean. Batetik 50 urte bete berri dituen Betiola-Elizatzko koadrilari eta bestetik 25 urte bete dituen Betikoak koadrilari. Bi koadrilak txaranga atera ziren goiz eta arratsaldean, urteetan egin izan dutenari eutsiaz. □

### Jubilatuetan ekitaldiak

JUBILATU Etxeak ekitaldiak antolatu ditu gaurko. Goizeko 10:00etan txapelketak izango dira: bola, toka, igela eta botea. 11:00etan Jubilatu Etxeko gimnasia; 12:00etan, txapelketetako sariak banatuko dira, eta ondorenean omenaldia egingo zaie Jubilatu Etxeko lehendakari izan direnei eta senideei, eta gero luntxa izango da. □

### Kontzertua gaur Tilosetan Riddim eta Zea Mays taldeekin

KONTZERTUA dago gaur Tilosetan, iluntzeko 23:00etan. Riddim regae taldeak eta Zea Mays rock talde bilbotarrak emango dute kontzertua gaur. □

### Gazteen pelota partiduak kiroldegian

BENJAMIN, alebin eta infantil mailako 7 final jokatu dira gaur kiroldegian, 15:00etan. Guztira 150 umek hartu dute parte txapelketan eta 28 onenak neurtuko dira gaur. Takilan, Herri Arteko finalerako txartelak salduko dira 18:00ak arte. □

## EGITARAUA

### EKAINAK 26, OSTEGUNA

07:00 Diana, *Hernani* Musika Eskola Publikoko txistulariekin.

07:30 Sokamuturra

08:00 Gosari herrikoia Plaza Berrian, Txosna Batzordeak antolatuta.

09:00 Axeri Dantza

10:00 "Superjumper", haur eta gazteentzat, Tilosetan.

10:00 Toka, igel, bolo eta poto lehiaketa Jubilatu Etxean.

11:00 Gimnasia Jubilatu Etxeko plazan. Ondoren, lehendakari izandakoei eta senideei omenaldia eta luntxa.

11:00 Gaztelu puzgarriak kiroldegi ondoan.

11:00 Santa Barbara txarangaren irteera.

12:00 Erraldoi eta buru haundien konpartsa Kriskitiña dantza taldearekin.

15:00 Hernaniko V.pilota-txapelketaren finalak kiroldegian.

17:30 Umeentzako zezenak, Urumea ikastola aldamenean.

17:30 Ttarla dantza taldearen emanaldia Gudarien plazan.

19:00 Magia emanaldia txosna gunean, Tilosetan.

19:00 Bertso saioa Gudarien plazan: Joxe Agirre, Xebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Xabier Legarreta, Iñaki Zelaia eta Aritz Zerain. Aurkezle, Estixu Eizagirre.

23:00 Rock kontzertua Riddim eta Zea Mays taldeekin.

Molotoff Irratian Germen eta Afoniaren punk kontzertua eta ondorenean Selett eta Rassklatekin techno eta Reggae-ragga musika jarriko dituzte.

24:00 Nekaezina txarangaren irteera.

## Bihar, Baserritarren Eguna, herri kirolak izango dira Tilosetan

BASERRITARREN eguna da bihar San Joan jaien barruan. Urteroko moduan herri kirolak antolatu ditu Elur Txori elkarteak eguerdirako. Muguruza aizkolaria, Ostolaza eta Landarbide hari jasotzaileak eta iparraldeko jokoak izango dira, Tilosetan, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Aurten ez dira bertsolariak baserritar egunean izango, gaur ilunabarrean baizik. □



  
**GasHernani**

**Zure etxerako  
energia naturala  
GAS NATURALA**

*San Joan jai zorientsuak opa dizkizuegu!*

Gudarien Enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20120 HERNAN



Goiko argazkian Betikoak taldea eta behean Betiola-Elizatxo txaranga.

## Betikoak eta Betiola-Elizatxo omenduak atzo

■ Udaletxean egin zieten omenaldia bi koadrilei, 25 eta 50garren urteurrenean.

BI koadrila omendu ditu aurtentzen Udaletxeak: Betikoak 25garren urteurrenean eta Betiola Elizatxo 50garren urteurrenean. Atzo eguerdiko 12:00-etan izan zuten ekitaldia Udaletxean eta Iñaki Arratibel Gobernu Taldeko ordezkariak oroigarriak eman zizkien.

**Betikoak: ezkondu egunean sortutako koadrila**  
Orain 25 urte sortu zen Betikoak taldea. Orduan ezkonduen eguna egiten zen eta emakumeek ez omen zuten parte hartzen festan eta horrekin puskatzeagatik hasi ziren ateratzen. Geroztik ur-

tero atera izan dira San Joan bigarrenarekin.

**Betiola-Elizatxo: 50 urte txarangarekin**  
Betiola Elizatxo taldea orain 50 urte sortu zen eta geroztik urtero atera izan da, txaranga lagun duela, herriko kaletan. □



Iñaki Zelaia bertsoa pentsatzen.

## Lizaso, Agirre, Legarreta, Zerain, Zelaia eta Iturriaga gaur bertsoan

■ Bertso jaialdia arratsaldeko 19:00etan izango da, Gudarien plazan. □

GAUR arratsaldean bertso jaialdia izango da plazan, Elur-Txori elkarteak antolatuta. Sebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Aritz Zerain, Iñaki Zelaia, Joxe Agirre eta Xabier Legarreta arituko dira bertso kantari, eta Estitxu Eizagirrek aurkeztuko ditu bertso eskolak jarritako gaiak.

tradizio handia du eta orain artean Baserritar Egunean bertan egin izan da, bazkalaurtean eta bazkalondan. Antolatzaileek, ordea, bultzada berri bat eman nahi izan diote jaialdiari, eta erabaki dute sei bertso-larirekin jaialdi *fuerte* bat egitea, saioa goiz eta arratsalde egin beharrean.

**Bultzatu berri bat eman**  
San Joanetako bertso saioak

Elur-Txorik bertsozale guztiak gonbidatu ditu gaur arratsaldean bertso jaialdira. □

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

#### ✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7  
☎ 943 552941
- ▶ Gaez: Tanco Urmieta. San Juan 36  
☎ 943 550942

**OLARRRETA JAI ALAI!**

San Joan jai zoriotsuak opa dizkizuegu!  
**Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak**

**GAUR 16:00ETATIK AURRERA**  
**ERREMONTE JAIALDIA:**

1. partidua: Odriozola - Badiola / Matxin IV - Badiola
2. partidua: Ezkurra - Lizaso / Altuna I-Altuna II - Etxabe
3. partidua: Agirresarobe-Aizpuru / Bitoria-A.Lekunberri
4. partidua: Sarasua-Urko / Iribarren - Urretabizkaia II

Jai zoriotsuak opa dizkizuegu

**Iturraide**

M<sup>a</sup> Pilar Anzizar Balerdi  
Tel.: 943 330 461

Iturralde Baserría - Ereñozu Auzoa  
20120 HERNANI

**SEAT ETA OPEL ZERBITZU OFIZIALAK**

Autoak SEAT OPEL Auto

**URUMEA Autoak - Auto HERNANI**

Kotxe berri eta aukerako salmenta  
Tailer mekanikoa eta elektrizitatea  
San Joan jai zoriotsuak opa dizkizuegu

Finantziarioa  
Karrozeria  
Auto Hernani

Urumea Autoak  
Akarregi auzoa 25, 943 332274 Akarregi auzoa 25, 943 552546

**LEOKA TABERNA**

Kardaberaz 3, HERNANI

BUKAL PRESOK  
BUKAL HISTORIA

San Joan zoriotsuak opa dizkizuegu

**ATE**  
EDARITEGIA

Ogitartekoak eta pintxoak  
Gora San Joan!

Ezkiaga 5 - HERNANI  
943 55 20 07

**BODEGA taberna**

Kardaberaz, 14  
Gora San Joan! Tel.: 943 550011  
Web orria: www.labodegataberna.com

**ATXUR Taberna**

ZATOZ FESTARA  
GORA SAN JOAN!  
Tel.: 943 55 26 46

HERNANI

HERNANI

**KixKal Taberna**  
naqusia 15

Egunero pintxo aukera ederra. Asteburuetan pintxo beroak ere bai.



**Preso eta errefuxiatuek omenaldi beroa jaso zuten.** San Joan egunez egin zitzairen Hernaniko preso eta errefuxiatuei omenaldia Gudarien Plazan. Ainhoa Garcia eta Oihane Bakedano espetxean dauden hernaniarren karta bana irakurri zuten eta Pakito Lujanbiok bidalitako bertsoak kantatu zituen bere ilobak, besteak beste. Kondenaren 3/4ak beteak dituzten presoan aipamen berezia egin zen ekitaldian eta preso eta errefuxiatuen senitartekoei lore sorta eta txapela bana eman zieten. □



**Umeak jolasean jarri zituzten atzo Kiki, Koko eta Mokok.** Herriko gaztetxoek ere izaten dute herriko festetan gozatzeko bidea. Atzo Kiki, Koko eta Moko pailazoek irripar betean eduki zituzten Biteri Plazara elkartutako umeak. Parre egin arazteaz gain, disfrazatu eta festan parte hartu arazi zieten Hernaniko gazteei. Kiki, Koko eta Moko zortzi urtean etorri dira Hernanira eta Kronikari esan diotenez harrera oso ona egiten diote hemen. Hernaniko gazteak oso osasuntsu zeudela esan zuten "parre egitea gustatzen zaielako". □



**Koadrila bazkariak, barrua berotzeko.** Hernaniko koadrila askok izan zuten atzo bazkaria. Plazan 200 bat lagun elkartu ziren Gazte Asanbladak deituta. Horrez gain jatetxe eta elkarteetan ere elkartu ziren Hernaniko koadrilak, urteroko moduan. □



**Denak kalejiran.** Txaranga eta soinu joleek alaituta jende ugari ibili zen atzo kalean gora eta behera. Betikoak koadrilak eta Betiola-Elizatxo txaranga ere atera ziren besteak beste. Txarangetan jende asko ibiltzen da San Joanetan eta ekainaren 25ean oraindik eta gehiago. □

Hernaniko kronikako laguntzaile:



**ORAUNE PROMOZIOAK**  
Ondo pasa San Joan jaiak.

Argitarapen honen laguntzaile:



**CAJA LABORAL** eta hernaniar guztioi.  
EUSKADIKO KUTXA

**OINDI**



taberna

**NAGUSIA, 25**  
Ondo pasa San Joan jaiak!  
GORA SAN JOAN - GORA HERNANI  
**943 557 509**



**C. D. HERNANI**  
Hernaniar guztioi eta bereziki kirol zaleei  
San Joan jaietan goza dezatela opa diegu!

**GORA SANJOAN**

PELOTA BOLA FUTBOLA ATLETISMOA



**GARAYAR AUTOBUSAK**



Zerbitzu diskrezionalak  
(ESKOLARRAK)

Autobus zerbitzua  
Linea erregularrak

**San Joan onak  
opa dizkizuegu!**

Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani  
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain

Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662  
Faxa: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

**brintza**



Brintza, S.L.

Lan aholkularitza  
Aholkularitza fiskalak  
Aseguruak, Inbertsioak

**Gora San Joan!**

Juan de Urbietta 15  
Tel.: 943 331267  
Faxa: 943 330892  
20120 Hernani

**DORRONSORO**



San Joan onak opa dizkizuegu!

Bertan egindako  
kalitatezko ogia

**OKINDEGIA**

J.Dorronsorok Okindegia, S.L.

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI



Gazteak (haruzkaldean) eta 90ko koadrila ia bate-batera helmugan sartzen. Arraunak elkar joka ere ibili zituzten bukaeran eta gazteek 48 zentesima aurretik sartu ziren.

## Omenaldi hunkigarria eta gazteak nagusi arraunean

■ Jende asko bildu zen atzo Elorrabin 1978an hildakoen aldeko elkitaldian ■ Gazteek 48 zentesimatik irabazi zuten estropada.

ELORRABIN 1978an bizia galdu zutenen aldeko elkitaldiak izan ziren atzo eguerdian. Egun beltz hartan hil zirenen-tzako oroitzapenak eta estropadaren emozioak momentu hunkigarri eta ederrak utzi zituzten. Lehendabizi 11:00etan meza izan zen, erriean ito ziren Karmelo Izeta Pagola, Bautista Izeta Pagola, Mari Pilar Arrieta, Sebastian Sagardia, Fer-

nando Estrada eta Ignazio Zuloagaren alde. Ondorenean, hildakoen senideei aureskua dantzatu eta oroigarri bana eman zitzairen, lau belaunaldietako arraunlariek arraunak jasota zituztela. Segidan, Batis Larburuk eta Jose Mari Irastortzak ere oroigarri bana jaso zuten, Hernaniko arraunaren alde egindako lanagatik. Elkitaldian jende asko bildu zen

eta Rekondo Alkatea eta Bildu Hernaniko ordezkariak ere han izan ziren.

**Arraunean gauzak estu**  
Omenaldien ondoren, estropaden txanda izan zen. Lehenbizi kanporaketako estropadak jokatu ziren binaka, eta gazteak eta 90garreneko belaunaldiak sartu ziren finalera. Alde haundirik izan ez bazen ere,

Gazteek 80ko arraunlariek utzi zituzten atzean, eta 90ko taldeak berriz, 70ko koadrila. Finala gogorra bezain estua izan zen, eta Kontxan bezala bukaeran zalaparta ere izan zen, arraunak elkar joka ibilita. Azkenean, gazteek segundo erdi eskasegatik irabazi zuten, eta ez zen inpugnaziorik izan.

Hiru-laugarren postua oraindik eta estuagoa izan zen. Hor,

ordea, zaharrak aurretik, 80ko taldeari 12 zentesimako aldea besterik atera ez bazion ere.

Lau belaunaldietako arraunlariek kirol espektakulo bikaina eman zuten eta publikoak gozatu ederra hartu zuen.

### Sailkapena

- 1- Gazteak 1:19:12
- 2- 90ko taldea 1:19:60
- 3- 70ko taldea 1:24:90
- 4- 80ko taldea 1:25:02




Meza Elorrabin, atzo, 1978an bizia galdu zutenen omenez.



Joxe Mari Irastorza oroigarriak ematen istripuan hildako senideei.

**IRUNTXI**  
Ondo pasa San Joan jaiak  
GORA SAN JOAN  
Taberna  
Kardaberaz 11 - 943 55 57 24

**Jatetxea**  
Ondo pasa San Joan jaiak.  
*Venta Berri*  
  
Arano - Nafarroa (948) 51 40 18  
Larunbatetan itxia

**AMEGAR**  
Etxe tresnak Altzariak  
  
Elektrogailuak TB- Bideoak-HI-FI-Opariak  
Sukalde altzariak  
Gora SanJoan!  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

**PUTZUETA**  
HARATEGIA - URDAITEGIA  
  
Gora SanJoan!  
Kardaberaz 39  
Tel.: 943 55 27 87  
20120 Hernani

**AITAN-ETXE**  
TABERNA  
EGUNEKO MENUAK  
Gora San Joan!  
Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46  
Hernani

**ZINGI-ZANGA**  
Jatetxea  
Eguneko menuak  
Asteburuan afariak  
  
Florida 54  
943 33 03 97  
Gora San Joan!

Ondo pasa San Joan jaiak!  
**Gora San Joan**  
**Gora Hernani**  
  
OKINDEGIA JANARIDENDA  
K/ Nagusia 19  
943 55 23 98  
HERNANI

SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU  
  
**ITXASPE**  
Arrandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobila: 653 74 10 97  
20120 Hernani

Asesoria  
**HATOR**  
Aholkularitza  
Fiskala  
Laborala  
Kontablea  
Administratiboa  
San Joan onak opa dizkizuegu  
Kardaberaz 60  
Tel.: 943 55 43 12  
20120 Hernani

  
**mikel armendariz**  
Gora San Joan!  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI